HERNANIKO UDALA ETA "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA"

2024KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUAK ETA EGOERA-ORRIAK, BERRIKUSPENAREN ETA ANALISIAREN TXOSTENAREKIN BATERA

AURKIBIDEA

2024KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUEN ETA EGOERA-ORRIEN BERRIKUSPENAREN ETA ANALISIAREN TXOSTENA 1

1. BERRIKUSI ETA ANALIZATUTAKO AURREKONTUKO EGOERA-ORRIAK 8
   1.1 Hernaniko Udala 8
      1.1.1 Aurrekontuaren likidazioa 8
      1.1.2 Aurrekontu-emaitza 9
      1.1.3 Diruzaintzako gerakina 9
   1.2 Ereñotzuko Toki Entitate Txikia 10
      1.2.1 Aurrekontuaren likidazioa 10
      1.2.2 Aurrekontu-emaitza 11
      1.2.3 Diruzaintzako gerakina 11

2. BERRIKUSI ETA ANALIZATUTAKO ONDAREKO EGOERA-ORRIAK 12
   2.1 Hernaniko Udala 12
      2.1.1 Balantzea 12
      2.1.2 Ondare-emaitza ekonomikoaren kontua 13
   2.2 Ereñotzuko Toki Entitate Txikia 14
      2.2.1 Balantzea 14
      2.2.2 Ondare-emaitza ekonomikoaren kontua 15

3. AURKEZTEKO OINARRIAK 16
   3.1 Sarrera 16
   3.2 Aplikatzekoa den araudia 17

4. IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK 18
   4.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 18
   4.2 ONDARE-KONTABILITATEA 18

5. EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA 19

HERNANIKO UDALA ETA "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA"

2024KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUEN ETA EGOERA-ORRIEN BERRIKUSPENAREN ETA ANALISIAREN TXOSTENA

HERNANIKO UDALA ETA "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA"
2024KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUEN ETA EGOERA-ORRIEN BERRIKUSPENAREN ETA ANALISIAREN TXOSTENA

Hernaniko Udaleko Kontu Hartzailetzari:

I. SARRERA

Jasotako enkarguaren baldintzei jarraikiz, erantsitako aurrekontuko eta ondareko egoera-orriak berrikusi eta analizatu ditugu (1. eta 2. atalak), 2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion HERNANIKO UDALAREN (Udala) eta "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA" (Ereñotzu) udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundearen urteko kontuak osatzen dituztenak. Egoera-orri horiek jasotzen dituzte, batetik, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina, eta, bestetik, itxiera-data horretako balantzea eta aipatutako erakundeetako bakoitzaren ondare-emaitza ekonomikoaren kontua (kasu honetan, Udalarena bakarrik). Aurrekontuko eta ondareko egoera-orri horiek 2024ko ekitaldiko HERNANIKO UDALAREN kontu orokorrean integratzen dira.

Erakunde horietako alkateak/lehendakariak du urteko kontuak formulatzeko erantzukizuna. Horiek islatu behar dute erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren, ondare-emaitza ekonomikoaren eta aurrekontua betearaztearen irudi fidela, erakunde horiei aplikatzekoa den finantza-informazioaren esparru arauemailearen arabera. Esparru hori honako foru-dekretu honetan ezarritakoa da: *86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena* (4. atala).

Lan hau 2024ko maiatzetik uztailera arte egin dute BETEAN AUDITORÍA SLP sozietateko profesionalek, auditoretzari buruz indarrean dagoen araudiari eta *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuan* (aurrerantzean, *barne-kontrolaren foru-dekretua*) xedatutakoari jarraikiz.

HERNANI Donostialdean dago, Gipuzkoan, eta zuzenbideko 20.450 biztanle ditu 2024ko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

II. EGINDAKO LANAREN XEDEA ETA IRISMENA

Adierazitako *barne-kontrolaren foru-dekretuak* ezartzen duen moduan, organo kontu-hartzaileak tokiko sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren barne-kontrola egikaritzen du *funtzio kontu-hartzailearen* eta *finantza-kontrolaren* bidez.

Oro har, adierazitako *finantza-kontrolak* honako ezaugarri hauek ditu:

- Tokiko sektore publikoko zerbitzuen funtzionamendua ekonomia- eta finantza-alderdian ziurtatzea du xede, haiek araupetzen dituzten araudia eta gidalerroak betetzen dituztela egiaztatzeko.

- Zuzenean gauzatu dezake organo kontu-hartzaileak edo eskuordetutako organoen bidez, edo, bestela, horretarako kontratatutako tokiko erakundeaz beraz kanpoko bitartekoen lankidetzaz baliatuta, betiere haren gainbegiratu eta zuzendaritzapean.

- Modalitate hauek hartzen ditu barnean: *kontrol iraunkorra* eta *auditoretza publikoa*.

Zehazki, modalitate horien artean, *kontrol iraunkorraren* bitartez egiaztatzen da, modu jarraituan, tokiko sektore publikoko ekonomia- eta finantza-jardueraren funtzionamendua bat datorren ordenamendu juridikoarekin eta finantza-kudeaketa egokiaren printzipio orokorrekin, azken xedea baita kudeaketaren ekonomia, finantza, ondare, aurrekontu, kontabilitate, antolaketa eta prozedurari dagozkien alderdiak hobetzea. Horretarako, auditoretza-teknikak aplika daitezke, eta, beste zenbait jarduketaren artean, honako hauek:

- Kontabilitate-erregistroak, kontuak edo egoera-orri finantzarioak edo eragiketa indibidualizatu eta zehatzak aztertzea.

- Funtzio kontu-hartzaileak hartzen ez dituen kudeaketa ekonomikoaren alderdiei aplikatzekoak diren prozedurak eta araudia betetzen direla egiaztatzea.

- Laginketa-tekniken bidez egiaztatzea organo kudeatzaileek erakunde horien kontabilitate-informazioaren euskarri gisa emandako garrantzi ekonomikoko datuek eta informazioak arrazoizko moduan islatzen dutela haien ekonomia- eta finantza-jardueraren ondorio diren eragiketen emaitza.

Kontrol iraunkorreko lanak egiteko behar diren egiaztapenak sistematikoki eta horretarako hautatutako eragiketak edo jarduketak analizatzeko prozeduren aplikazioaren bidez egin behar dira, ebidentzia nahikoa, egokia eta balioduna lortu ahal izateko.

Egiaztapen horiek auditoretza-prozedurak aplikatuz eginez gero, sektore publikoko auditoretzaren arauetan ezarritakoa bete beharko dute.

Horretarako, hau da, *barne-kontrolaren foru-dekretuan* eta *Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuan* jasotako barne-kontroleko jarduketak (finantza-kontrola) *kontrol iraunkorreko* modalitatearen bitartez egikaritzeko, Udaleko Kontu Hartzailetzak kontratatu ditu 2024ko aurrekontu-ekitaldiaren amaieran osatutako urteko kontuak eta egoera-orriak berrikusteko

lanak eta *finantza-kontrolarekin* zerikusia duten beste zeregin batzuk gauzatzeko lankidetza-zerbitzuak.

Kontratatutako jarduketetako lehenengoari dagokionez, hots, urteko kontuak eta egoera-orriak berrikusteko lanei, enkargatutako lanaren eginkizuna da egiaztatzea Udalaren (eta, hala badagokio, Ereñotzu erakundearen) urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan islatzen dutela haren ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela, baita haren emaitzena eta ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioaren egoera-orriarena ere, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearekin eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideekin bat etorriz.

Txosten honetan jarduketa horri buruz lortutako ondorioak azaltzen dira: hau da, Udalean eta, hala badagokio, Ereñotzu erakundean honako hauei buruz egindako lanaren ondorio diren emaitzak:

a) 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egokitasunari buruzko berrikuspena eta analisia.
b) Ekitaldi horri dagokion ondare-kontabilitatearen berrikuspena eta analisia.

III. LORTUTAKO EMAITZAK

a) 2024KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOKITASUNARI BURUZ:

Gure lanaren emaitza gisa ondorioztatu ahal izan dugunez, hurrengo 1. puntuan hautemandako egintza eta egoeretan deskribatzen den dokumentazioa lortu eta egiaztatu ahal izan bagenu beharrezkotzat jo zitezkeen doikuntzen ondorioak alde batera utzirik, erantsitako aurrekontuko egoera-orriek (1. atala), HERNANIKO UDALAREN eta "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA" udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundearen 2024ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioen ondorioz zehaztutakoek, egoki aurkezten dute, alderdi esanguratsu guztietan, erakunde horien aurrekontuak betearaztearen emaitzen irudi fidela, izaera horretako egoera-orriak prestatzeko lanetan aplikatzekoa den finantza-informaziori buruzko esparru arauemailearen arabera (4. atala) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

Hautemandako gertakariak eta egoerak

1. Berrikuspenaren eta analisiaren txosten honen datan, ezin izan dugu jaso baieztapena jasotzeko egin genuen eskaeraren erantzuna:

    - Banco Santander erakundea, Udalak finantza-erakunde horrekin izandako kontu korronteen, aurrezki-kontuen eta eragiketen 2024ko abenduaren 31ko egoerari dagokionez.
    - Udalaren hiru hornitzaile, 2024ko abenduaren 31ko zorraren osaerari eta data horretan amaitutako ekitaldian zehar haiekin egindako eragiketen bolumenari dagokienez.
    - Udalarekin harreman profesionalak izan dituzten bi abokatu, harengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen guztizko obligazioei edo pasibo kontingenteei dagokienez.
    - HABE, Hernaniko Udalari bere egoera-orri finantzarioen kargura 2024ko ekitaldian egiaztatutako ordainketei dagokienez.

Nabarmentzeko moduko beste gertakari batzuk

1. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren analisian detektatu da likidazio-datak eta eskualdatze-data nabarmen desberdinak direla.

2. Udalaren sarreren aurrekontuko "Tasak eta bestelako sarrerak" kapituluko "Ur-hornidura" eta "Estolda-zerbitzuak" kontzeptuetan 2023ko ekitaldiko hirugarren lauhilekoari eta 2024ko ekitaldiko lehen bi lauhilekoei dagozkien sarrerak laburbilduta ageri dira.

3. Era berean, sarreren kapitulu horretan bertan, 2024ko ekitaldian erregistratu da 2023ko ekitaldiko gaikako paper-bilketaren urteko plus aldakorrari dagokion 70.465 euroko sarrera. Eskubide horiek 2024ko ekitaldiko sarreren aurrekontuan kontabilizatu ziren, Ecoembalajes España SA sozietateak likidazio-dekretuaren ondoren egin baitzuen plus horien jakinarazpena.

4. Udalaren sarreren aurrekontuko "Transferentzia arruntak" eta "Kapital-transferentziak" kapituluetan, transferentzia arrunt batzuk (4. kapitulua) edo kapital-transferentzia batzuk (7. kapitulua) behar bezala erregistratu ez direla hauteman da.

5. Bestalde, Udalaren gastuen aurrekontuko "Ondasun eta zerbitzuen erosketak" kapituluan hauteman denez, 2024ko abenduaren 31n erregistratu gabe dago 2024ko ekitaldiko uraren saneamenduaren kanonari dagokion gastua, 31.813 euroko zenbatekoaz. Alderantziz, 2023ko ekitaldiari dagokion zenbatekoari dagokion zenbateko bera erregistratu da.

6. Aurrekontuak aldatzeko espedienteei dagokienez, kreditu-transferentzia baten kasuan programa baten aldakuntza metatuak hasierako aurrekontuaren % 25 gainditzen du eta Alkatetzaren Dekretu bidez onartu da, baina udaleko osoko bilkurak onartu beharko zukeen.

7. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioen ondoriozko aurrekontu-emaitzaren doikuntzari dagokionez, doikuntza hori ez da egin aplikatzekoa den araudiak ezarritako irizpideen arabera, eta ez ditu kontuan hartu gastu orokorretarako gerakinaz bestelako finantzaketekin kontabilizatutako obligazioak. Horren ondorioz, doikuntza horrek 4.157.204 eurokoa izan beharko luke (4.406.421 euro Udalaren kalkuluaren arabera). Beraz, aurrekontu-emaitza 249.217 euro gainetik baloratuta dago.

b) <u>2024KO EKITALDIARI DAGOKION ONDARE-KONTABILITATEA</u>:

Gure lanaren emaitza gisa ondorioztatu ahal izan dugunez, hurrengo 1. eta 2. puntuetan hautemandako egintza eta egoeretan deskribatzen den dokumentazioa lortu eta egiaztatu ahal izan bagenu beharrezkotzat jo zitezkeen doikuntzen ondorioak salbuetsita eta hurrengo 3. eta 4. puntuetan deskribatzen direnen ondorioak alde batera utzirik, erantsitako ondareko egoera-orriek (2. atala), HERNANIKO UDALAREN 2024ko aurrekontu-ekitaldiaren amaieran osatutakoek, egoki aurkezten dute, alderdi esanguratsu guztietan, Udalaren 2024ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela, baita data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzena ere, izaera horretako egoera-orriak prestatzeko lanetan aplikatzekoa den finantza-informaziori buruzko esparru arauemailearen arabera (4. atala) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

<u>Hautemandako gertakariak eta egoerak</u>

1. *III.a) atalean ("2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egokitasunari buruz")* deskribatutako gertakariek ondare-kontabilitatean izan litzaketen ondorioak.

2. Udalaren patronatuak azken urteetako zenbait unetan desegin ondoren, Udalak pixkanaka itzuli dizkio udal-erakundeari erakunde autonomoei atxikitako inbertsioak eta erakundeek beren aurrekontuen kargura egindako inbertsioak.

   Kasu batzuetan, alabaina, adibidez Kirol Patronatuaren kasuan, ez dago jasota Udalak bere garaian, edo geroztik, benetan itzulitako inbertsioak eta hobekuntzak inbentariatu eta baloratu zituenik. Hori dela eta, ezin da jakin zein izan beharko zuketen Patronatua desegitearen ondorioz Udalaren balantzean sartu beharko ziratekeen balioak.

3. Bestalde, hauteman da ez direla erregistratu 2024ko hirugarren lauhilekoari dagozkion ur-horniduraren eta estolderiaren sarrerak, 844.823 eurokoak. 2024ko abenduaren 31n,

alabaina, 2023ko hirugarren lauhilekoari dagozkionak erregistratu dira, 822.507 euroko zenbatekoaz.

4. Era berean, Udalak ez du zenbatekorik erregistratu Beterri-Kostako Industrialdea S.A sozietatearen kapital sozialeko partaidetzaren narriaduraren ondorioz; 13.860 eurokoa izango litzateke.

Betean Auditoría SLP



José Ignacio Miguel Salvador

2025eko ekainaren 2a

HERNANIKO UDALA ETA "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA"

2024KO AURREKONTU-EKITALDIAREN AMAIERAN OSATUTAKO URTEKO KONTUAK ETA EGOERA-ORRIAK

1. BERRIKUSI ETA ANALIZATUTAKO AURREKONTUKO EGOERA-ORRIAK

1.1 HERNANIKO UDALA

1.1.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

SARREREN EGOERA-ORRIA – 2024KO EKITALDIA							
Kapitulua	**Hasierako aurrekontua**	**Aldaketa +/-**	**Behin betiko aurrekontua**	**Eskubide likidatuak**	**Bilketa likidoa**	**Kobratzeko**	**Betearazte-egoera**
1- Zuzeneko zergak							
2- Zeharkako zergak	7.280.600,00	-	7.280.600,00	7.936.642,36	7.265.878,64	670.763,72	656.042,36
3- Tasak eta bestelako sarrerak	1.276.000,00	-	1.276.000,00	1.134.862,12	865.762,90	269.099,22	(141.137,88)
4- Transferentzia arruntak	8.156.800,00	-	8.156.800,00	8.319.640,89	7.244.793,04	1.074.847,85	162.840,89
5- Ondare-sarrerak	19.974.000,00	52.752,76	20.026.752,76	19.900.610,36	19.425.483,49	475.126,87	(126.142,40)
Sarrera arruntak guztira	**36.763.300,00**	**52.752,76**	**36.816.052,76**	**37.682.338,83**	**35.156.565,19**	**2.525.773,64**	**866.286,07**
6- Inbertsio errealak	11.000,00	-	11.000,00	39.857,23	39.857,23	-	28.857,23
7- Kapital-transferentziak	-	70.000,00	70.000,00	515.943,46	250.667,78	265.275,68	445.943,46
8- Aktibo finantzarioak	11.000,00	11.684.596,97	11.695.596,97	8.732,11	4.900,66	3.831,45	(11.686.864,86)
Kapital-sarrerak guztira	**1.353.000,00**	**11.754.596,97**	**13.107.596,97**	**564.532,80**	**295.425,67**	**269.107,13**	**(12.543.064,17)**
SARRERAK GUZTIRA	**38.116.300,00**	**11.807.349,73**	**49.923.649,73**	**38.246.871,63**	**35.451.990,86**	**2.794.880,77**	**(11.676.778,10)**

GASTUEN EGOERA-ORRIA – 2024KO EKITALDIA							
Kapitulua	**Hasierako aurrekontua**	**Aldaketa +/-**	**Behin betiko aurrekontua**	**Obligazio kontabilizatuak**	**Ordainketa likidoak**	**Ordaintzeko**	**Betearazte-egoera**
1- Langile-gastuak	12.907.260,00	9.698,05	12.916.958,05	12.477.556,15	12.462.358,19	15.197,96	(439.401,90)
2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak	18.010.300,00	1.608.769,04	19.619.069,04	17.398.830,77	15.703.701,73	1.695.129,04	(2.220.238,27)
4- Transferentzia arruntak	-	500,00	500,00	210,14	210,14	-	(289,86)
5- Kreditu globala eta bestelako gastuak	3.690.000,00	826.234,97	4.516.234,97	3.377.282,88	2.857.384,00	519.898,88	(1.138.952,09)
Gastu arruntak guztira	**34.875.300,00**	**2.279.002,06**	**37.154.302,06**	**33.253.879,94**	**31.023.654,06**	**2.230.225,88**	**(3.900.422,12)**
6- Inbertsio errealak	3.230.000,00	9.528.347,67	12.758.347,67	3.355.551,02	2.347.427,56	1.008.123,46	(9.402.796,65)
8- Aktibo finantzarioak	11.000,00	-	11.000,00	8.732,11	8.732,11	-	(2.267,89)
Kapital-gastuak guztira	**3.241.000,00**	**9.528.347,67**	**12.769.347,67**	**3.364.283,13**	**2.356.159,67**	**1.008.123,46**	**(9.405.064,54)**
GASTUAK GUZTIRA	**38.116.300,00**	**11.807.349,73**	**49.923.649,73**	**36.618.163,07**	**33.379.813,73**	**3.238.349,34**	**(13.305.486,66)**

- Eurotan -

2024AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA				
Kapitulua	**Hasieran kobratzeko/ ordaintzeko**	**Baliogabetzea**	**Kobrantzak/ ordainketak**	**Kobratzeko/ ordaintzeko**
Zordunak	3.752.221,17	(100.864,39)	2.414.387,50	1.236.969,28
Hartzekodunak	2.645.701,95	(12,06)	2.645.689,89	-
ITXITAKO AURREKONTUAK	**1.106.519,22**	**(100.852,33)**	**(231.302,39)**	**1.236.969,28**

1.1.2 AURREKONTU-EMAITZA

-Eurotan-

Indarreko aurrekontuko eragiketen emaitza:		**1.628.708,56**
Eskubide likidatuak	38.246.871,63	
Obligazio kontabilizatuak	36.618.163,07	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza:		**(100.852,33)**
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	12,06	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	100.864,39	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU-EMAITZA		**1.527.856,23**
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		**4.456.075,10**
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak	4.406.421,30	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratzeak	49.653,80	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		**5.983.931,33**

1.1.3 DIRUZAINTZAKO GERAKINA

-Eurotan-

1.- Diruzaintzako funts likidoak		**30.488.388,61**
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		**4.184.719,93**
Eskubide kontabilizatuen ondoriozko zordunak	2.794.880,77	
Eskubide kontabilizatuen ondoriozko zordunak: itxitako ekitaldia	1.236.969,28	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	152.869,88	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		**5.948.421,53**
Obligazio kontabilizatuen ondoriozko hartzekodunak	3.238.349,34	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	2.710.072,19	
4- Aplikatu gabeko partidak		**(38.410,82)**
Aplikatu gabeko kobrantzak	42.554,19	
Aplikatu gabeko ordainketak	4.143,37	
DIRUZAINTZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 – 3 + 4)		**28.686.276,19**
Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak		1.331.129,81
DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOA		**27.355.146,38**
Finantzaketa lotuko gastuei lotutako diruzaintzako gerakina		1.918.732,00
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA		**25.436.414,38**

1.2 EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

1.2.1 AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

SARREREN EGOERA-ORRIA – 2024KO EKITALDIA							
Kapitulua	**Hasierako aurrekontua**	**Aldaketa +/-**	**Behin betiko aurrekontua**	**Eskubide likidatuak**	**Bilketa likidoa**	**Kobratzeko**	**Betearazte-egoera**
3- Tasak eta bestelako sarrerak	8.550,00	-	8.550,00	11.270,02	11.270,02	-	2.720,02
4- Transferentzia arruntak	578.500,00	21.029,50	599.529,50	590.049,50	152.472,57	437.576,93	(9.480,00)
5- Ondare-sarrerak	100,00	-	100,00	176,84	176,84	-	76,84
Sarrera arruntak guztira	**587.150,00**	**21.029,50**	**608.179,50**	**601.496,36**	**163.919,43**	**437.576,93**	**(6.683,14)**
8- Aktibo finantzarioak	100,00	783.710,96	783.810,96	-	-	-	(783.810,96)
Kapital-sarrerak guztira	**100,00**	**783.710,96**	**783.810,96**	**-**	**-**	**-**	**(783.810,96)**
SARRERAK GUZTIRA	**587.250,00**	**804.740,46**	**1.391.990,46**	**601.496,36**	**163.919,43**	**437.576,93**	**(790.494,10)**

- Eurotan -

GASTUEN EGOERA-ORRIA – 2024KO EKITALDIA							
Kapitulua	**Hasierako aurrekontua**	**Aldaketa +/-**	**Behin betiko aurrekontua**	**Obligazio kontabilizatuak**	**Ordainketa likidoak**	**Ordaintzeko**	**Betearazte-egoera**
1- Langile-gastuak	67.100,00	-	67.100,00	49.309,53	49.309,53	-	(17.790,47)
2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak	302.100,00	44.571,30	346.671,30	253.367,50	247.264,76	6.102,74	(93.303,80)
4- Transferentzia arruntak	44.950,00	7.920,00	52.870,00	46.490,54	46.490,54	-	(6.379,46)
Gastu arruntak guztira	**414.150,00**	**52.491,30**	**466.641,30**	**349.167,57**	**343.064,83**	**6.102,74**	**(117.473,73)**
6- Inbertsio errealak	173.000,00	752.249,16	925.249,16	42.248,66	42.248,66	-	(883.000,50)
8- Aktibo finantzarioak	100,00	-	100,00	-	-	-	(100,00)
Kapital-gastuak guztira	**173.100,00**	**752.249,16**	**925.349,16**	**42.248,66**	**42.248,66**	**-**	**(883.100,50)**
GASTUAK GUZTIRA	**587.250,00**	**804.740,46**	**1.391.990,46**	**391.416,23**	**385.313,49**	**6.102,74**	**(1.000.574,23)**

- Eurotan -

2024AN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA				
Kapitulua	**Hasieran kobratzeko/ ordaintzeko**	**Baliogabetzea**	**Kobrantzak/ ordainketak**	**Kobratzeko/ ordaintzeko**
Zordunak	388.636,64	(81,50)	388.555,14	-
Hartzekodunak	29.798,56	-	29.798,56	-
ITXITAKO AURREKONTUAK	**358.838,08**	**(81,50)**	**358.756,58**	**-**

1.2.2 AURREKONTU-EMAITZA

-Eurotan-

Indarreko aurrekontuko eragiketen emaitza:		**210.080,13**
Eskubide likidatuak	601.496,36	
Obligazio kontabilizatuak	391.416,23	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza:		**(81,50)**
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	81,50	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU-EMAITZA		**209.998,63**
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		**73.192,23**
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak	73.192,23	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratzeak	-	
AURREKONTU-EMAITZA DOITUA		**283.190,86**

1.2.3 DIRUZAINTZAKO GERAKINA

-Eurotan-

1.- Diruzaintzako funts likidoak		**763.713,28**
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		**437.576,93**
Eskubide kontabilizatuen ondoriozko zordunak	437.576,93	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		**14.476,66**
Obligazio kontabilizatuen ondoriozko hartzekodunak	6.102,74	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	8.373,92	
DIRUZAINTZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 – 3)		**1.186.813,55**
Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak		-
DIRUZAINTZAKO GERAKIN LIKIDOA		**1.186.813,55**
Finantzaketa lotuko gastuei lotutako diruzaintzako gerakina		-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINA		**1.186.813,55**

2 BERRIKUSI ETA ANALIZATUTAKO ONDAREKO EGOERA-ORRIAK

2.1 HERNANIKO UDALA

2.1.1 BALANTZEA

-Eurotan-

AKTIBOA	2024/12/31	2023/12/31	PASIBOA	2024/12/31	2023/12/31
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA	**52.792.845,93**	**52.086.495,76**	**A) ONDARE GARBIA**	**79.242.436,02**	**76.937.857,26**
I) Ibilgetu ukiezina	1.407.666,28	1.540.816,19	I) Ondarea	*31.417.814,59*	*31.417.814,59*
Bestelako ibilgetu ukiezina	*1.407.666,28*	*1.540.816,19*			
			II) Sortutako ondarea	46.769.289,62	45.278.732,10
II) Ibilgetu materiala	47.186.203,56	46.286.760,30	*Aurreko ekitaldietako emaitzak*	*45.443.055,63*	*47.699.966,22*
Lursailak	*4.618.386,28*	*4.343.736,51*	*Ekitaldiko emaitza*	*1.326.233,99*	*(2.421.234,12)*
Eraikuntzak	*30.540.457,50*	*30.269.549,29*			
Azpiegiturak	*8.295.507,66*	*8.523.956,66*	IV) Jasotako dirulaguntzak, emaitzetara egozteko daudenak	1.055.331,81	241.310,57
Ondare historikoko ondasunak	*19.490,06*	*19.490,06*			
Bestelako ibilgetu materiala	*3.455.218,96*	*2.304.139,50*	**B) PASIBO EZ-KORRONTEA**	**975.107,62**	**960.173,15**
Uneko ibilgetu materiala eta aurrerakinak	*257.143,10*	*825.888,28*			
III) Higiezinetako inbertsioak	2.106.384,51	2.166.327,69	II) Epe luzeko zorrak	37.800,47	22.866,00
Eraikuntzak	*2.106.384,51*	*2.166.327,69*	*Bestelako zorrak*	*37.800,47*	*22.866,00*
V) Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako epe luzeko inbertsio finantzarioak	2.092.591,58	2.092.591,58			
Zuzenbide publikoko erakundeen ondarean egindako inbertsio finantzarioak	*566.059,52*	*566.059,52*	IV) Hartzekodunak eta epe luzean ordaintzeko bestelako kontuak	*937.307,15*	*937.307,15*
Sozietateen ondarean egindako inbertsio finantzarioak	*1.526.532,06*	*1.526.532,06*			
B) AKTIBO KORRONTEA	**33.381.420,29**	**30.120.625,46**	**C) PASIBO KORRONTEA**	**5.956.722,58**	**4.309.090,81**
			II) Epe laburreko zorrak	2.138.002,73	943.622,15
II) Izakinak	-	-	*Bestelako zorrak*	2.138.002,73	943.622,15
Beste erakunde batzuentzat eskuratu edo eraikitako aktiboak	-	-			
III) Zordunak eta epe laburrean kobratzeko bestelako kontuak	2.822.834,16	2.470.242,47	IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaintzeko bestelako kontuak	3.818.719,85	3.365.468,66
Kudeaketa-eragiketen ondoriozko zordunak	*2.665.820,91*	*2.375.475,63*	*Kudeaketa-eragiketen ondoriozko hartzekodunak*	*2.233.773,21*	*2.183.627,65*
Kobratzeko bestelako kontuak	*59.417,39*	*67.666,01*	*Ordaintzeko bestelako kontuak*	*780.080,70*	*436.513,25*
Administrazio publikoak	*97.595,86*	*27.100,83*	*Administrazio publikoak*	*804.865,94*	*745.327,76*
V) Epe laburreko inbertsio finantzarioak	70.197,52	41.208,14			
Ondarean egindako inbertsio finantzarioak	*35.298,19*	*35.298,19*			
Kredituak eta zorra adierazten duten bestelako baloreak	*34.899,33*	*5.909,95*			
VII) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	*30.488.388,61*	27.609.174,85			
Diruzaintza	30.488.388,61	*27.609.174,85*			
AKTIBOA GUZTIRA	**86.174.266,22**	**82.207.121,22**	**PASIBOA GUZTIRA**	**86.174.266,22**	**82.207.121,22**

2.1.2 ONDARE-EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

-Eurotan-

ONDARE-EMAITZA EKONOMIKOA	2024/12/31	2023/12/31
1. Zerga- eta hirigintza-sarrerak	16.105.499,70	13.490.905,44
a) Zergak	*9.082.758,08*	*5.334.402,55*
b) Tasak	*6.982.884,39*	*7.208.806,56*
d) Hirigintza-sarrerak	*39.857,23*	*947.696,33*
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	20.228.917,59	19.345.434,62
a) Ekitaldikoak	*20.228.917,59*	*19.345.434,62*
a.1) Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzak	*2.125.182,38*	*1.462.276,26*
a.2) Transferentziak	*18.103.735,21*	*17.883.158,36*
3. Salmentak eta zerbitzugintza	101.279,76	90.219,00
b) Zerbitzugintza	*101.279,76*	*90.219,00*
6. Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	1.049.484,16	1.017.148,88
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	**37.485.181,21**	**33.943.707,94**
8. Langile-gastuak	(12.500.664,25)	(11.576.629,08)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	*(9.671.028,09)*	*(8.925.712,97)*
b) Gizarte-kargak	*(2.829.636,16)*	*(2.650.916,11)*
9. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak	(3.377.282,88)	(3.206.442,24)
11. Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(18.977.560,64)	(18.358.734,35)
a) Kanpoko hornidurak eta zerbitzuak	*(18.813.237,11)*	*(18.358.734,35)*
b) Zergak	*(164.323,53)*	-
c) Bestelakoak		
12. Ibilgetuaren amortizazioa	(1.832.570,04)	(3.250.040,62)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	**(36.688.077,81)**	**(36.391.846,29)**
I. KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	**797.103,40**	**(2.448.138,35)**
14. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salmenta-egoerako aktiboen balio-narriaduraren eta besterentzeen emaitzak	-	(466,70)
b) Bajak edo besterentzeak	-	*(466,70)*
14. Bestelako partida ez-arruntak	149.841,21	46.606,35
a) Sarrerak	*149.841,21*	*46.606,35*
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA	**946.944,61**	**(2.401.998,70)**
15. Sarrera finantzarioak	404.809,83	80.733,45
b) Zorra adierazten duten baloreenak, kredituenak eta bestelako inbertsio finantzarioenak	*404.809,83*	*80.733,45*
b.2) Bestelakoak	*404.809,83*	*80.733,45*
16. Gastu finantzarioak	*(210,14)*	-
a) Taldeko erakundeekiko, talde anitzekoekiko eta elkartuekiko zorren ondoriozkoak	-	-
b) Bestelakoak	*(210,14)*	-
20. Aktibo eta pasibo finantzarioen balio-narriadura, bajak eta besterentzeak	(25.310,31)	(99.968,87)
a) Taldeko erakundeenak, talde anitzekoenak eta elkartuenak	-	-
b) Bestelakoak	*(25.310,31)*	*(99.968,87)*
III. ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	**379.289,38**	**(19.235,42)**
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA	**1.326.233,99**	**(2.421.234,12)**
AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA	**1.326.233,99**	**(2.421.234,12)**

2.2 EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

2.2.1 BALANTZEA

-Eurotan-

AKTIBOA	2024/12/31	2023/12/31	PASIBOA	2024/12/31	2023/12/31
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA	**1.231.020,83**	**1.272.747,62**	**A) ONDARE GARBIA**	**2.417.834,38**	**2.249.562,54**
II) Ibilgetu materiala	1.231.020,83	1.272.747,62	I) Ondarea	*566.059,52*	*566.059,52*
Lursailak	*43.499,57*	*43.499,57*			
Eraikuntzak	*757.668,78*	*787.302,36*	II) Sortutako ondarea	1.738.236,69	1.565.796,26
Azpiegiturak	*399.917,45*	*416.051,55*	*Aurreko ekitaldietako emaitzak*	*1.565.796,26*	*1.558.299,62*
Bestelako ibilgetu materiala	1.231.020,83	*25.894,14*	*Ekitaldiko emaitza*	*172.440,43*	*7.496,64*
			IV) Jasotako dirulaguntzak, emaitzetara egozteko daudenak	113.538,17	117.706,76
			B) PASIBO EZ-KORRONTEA	**1.746,11**	**1.000,00**
			II) Epe luzeko zorrak	1.746,11	1.000,00
			Bestelako zorrak	*1.746,11*	*1.000,00*
B) AKTIBO KORRONTEA	**1.201.290,21**	**1.015.972,86**	**C) PASIBO KORRONTEA**	**12.730,55**	**38.157,94**
III) Zordunak eta epe laburrean kobratzeko bestelako kontuak	437.576,93	388.636,64	II) Epe laburreko zorrak	2.750,00	2.750,00
Kudeaketa-eragiketen ondoriozko zordunak	*437.576,93*	*388.636,64*	*Bestelako zorrak*	*2.750,00*	*2.750,00*
VII) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	*763.713,28*	*627.336,22*	IV) Hartzekodunak eta epe laburrean ordaintzeko bestelako kontuak	9.980,55	35.407,94
Diruzaintza	*763.713,28*	*627.336,22*	*Kudeaketa-eragiketen ondoriozko hartzekodunak*	*6.102,74*	*29.798,56*
			Administrazio publikoak	*3.877,81*	*5.609,38*
AKTIBOA GUZTIRA	**2.432.311,04**	**2.288.720,48**	**PASIBOA GUZTIRA**	**2.432.311,04**	**2.288.720,48**

2.2.2 ONDARE-EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

-Eurotan-

ONDARE-EMAITZA EKONOMIKOA	2024/12/31	2023/12/31
1. Zerga- eta hirigintza-sarrerak	11.270,02	9.982,36
b) Tasak	*11.270,02*	*9.982,36*
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	594.218,09	520.402,06
a) Ekitaldikoak	*594.218,09*	*520.402,06*
a.1) Ekitaldiko gastuak finantzatzeko jasotako dirulaguntzak	*4.168,59*	*4.168,59*
a.2) Transferentziak	*590.049,50*	*516.233,47*
6. Kudeaketa arrunteko bestelako sarrerak	95,34	2.102,78
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	**605.583,45**	**532.487,20**
8. Langile-gastuak	(49.487,01)	(35.417,41)
a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak	*(40.174,31)*	*(25.408,17)*
b) Gizarte-kargak	*(9.312,70)*	*(10.009,24)*
9. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak	(46.490,54)	(27.630,00)
11. Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	(288.239,18)	(413.016,86)
a) Kanpoko hornidurak eta zerbitzuak	*(288.239,18)*	*(413.016,86)*
12. Ibilgetuaren amortizazioa	(48.926,29)	(48.926,29)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	**(433.143,02)**	**(524.990,56)**
I. KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	**172.440,43**	**7.496,64**
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA	**172.440,43**	**7.496,64**
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA	**172.440,43**	**7.496,64**
AURREKO EKITALDIKO EMAITZA DOITUA	**172.440,43**	**7.496,64**

3. AURKEZTEKO OINARRIAK

3.1 SARRERA

HERNANI Donostialdean dago, Gipuzkoako lurralde historikoan, eta zuzenbideko 20.450 biztanle ditu 2024ko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

Ekitaldiaren amaieran, toki-erakundeek kontu orokorra prestatu behar dute. Horretan, ekonomiaren, finantzaren, ondarearen eta aurrekontuaren arloetako kudeaketa aditzera eman behar dute. Udalerri horri dagokionez, 2024ko ekitaldiari dagokion HERNANIKO UDALAREN kontu orokorra Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. artikuluak Udalari berari eta "EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA" (Ereñotzu) udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeari eskatzen dizkien aurrekontuko eta ondareko kontuek eta egoera-orriek osatzen dute.

Erakunde horiei aplikatzekoak diren finantza- eta aurrekontu-informazioaren esparru arauemailea aipatutako foru-arauan bertan eta foru-dekretu honetan ezarritakoa da: 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki-entitateen kontabilitatearen arau-esparrua ezartzen duena.

Auditoretza-txostenean deskribatutako irismenaren arabera, Kontu Orokor horren parte diren erantsitako aurrekontuen egoera-orriak (1. atala) bakarrik dira gure lanaren helburu. Nolanahi ere, irismen horretan ez da sartu Udalaren gastuaren eraginkortasunari buruzko analisia, ezta haren kudeaketa-prozedurei buruzkoa ere.

Erantsitako aurrekontuko egoera-orri auditatuak erakunde bakoitzaren kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira.

2024ko ekitaldiko kontu orokorra 2025eko apirilaren 29an egindako bileran onartu du udaleko osoko bilkurak.

3.2 APLIKATZEKOA DEN ARAUDIA

2024ko ekitaldian, Gipuzkoako Toki Sektore Publikoari buruzko Araudiak zuzendu du Udala:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Toki-erakundeetan aplikatzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onartzen duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena.

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 424/2017 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duena.

4. IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK

4.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

III.a) atalean aipatutako gorabeherak kontuan harturik, honako hau gomendatzen dugu:

- Ekitaldi bakoitzeko azken likidazioak (hilekoak, hiru hilean behingoak...), sarreren zein gastuen ikuspuntutik begiratuta, ekitaldia ixteko aldia baino lehen lortzen ahalegintzea, dagokien ekitaldian erregistratu ahal izateko. Ezin bada, ekitaldi bakoitzean dagozkion aldi guztiak erregistratuta daudela ziurtatzea.

- Sarrerak, finantzatzen dituzten gastuen arabera, arrunten (4. kapitulua) eta kapitalekoen (7. kapitulua) artean kontabilizatzeko Udalak erabiltzen dituen irizpideak berrikustea.

- Aurrekontuak kreditu-transferentzien bidez aldatzeko espedienteei dagokienez, programetako aldakuntza metatuak berrikustea eta udaleko osoko bilkurak onartzea hasierako aurrekontuaren % 25 gainditzen dutenak.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioen ondoriozko aurrekontu-emaitzaren doikuntza aplikatzekoa den araudiak ezarritako irizpideen arabera kalkulatzea.

4.2. ONDARE-KONTABILITATEA

III.b) atalean aipatutako gorabeherak kontuan harturik, honako hau gomendatzen dugu:

- Inbentarioko ondasun adierazgarrienen balorazio erregistratuen berrikuspen orokorra egitea, baita Patronatuak desegin izanaren ondorioz Udalari itzuli zaizkion ondasunei dagokienena ere.
- Itzultzeko aukerari buruzko zentzuzko zalantzak daudela uste den unean, ENHERKOM komunitate energetikoari egindako ekarpenari dagokion narriadura zuzkitzea.

- Partaidetzapeko sozietateen kapital sozialeko partaidetzen balorazioak berrikustea, sozietatearen kapital sozialeko partaidetzaren narriaduraren ondorioz zenbatekorik erregistratu ez bada, erregistratu beharko litzatekeen zehazteko.

5. EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

"Ereñotzuko Toki Entitate Txikia" udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak landabideetarako 16.199 euroko kapitaleko dirulaguntza bat jaso zuen 2023ko ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik. Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak ekitaldiko sarrera gisa erregistratu zuen zenbatekoa, baina "Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntza" gisa erregistratu beharko zukeen. Beraz, 2024ko abenduaren 31ko balantzearen "Aurreko ekitaldietako emaitzak" epigrafea 16.199 euro gainetik baloratuta dago; eta "Emaitzetara egozteko dauden jasotako dirulaguntzak" epigrafea 14.579 euro azpitik baloratuta; eta ekitaldiko emaitza, berriz, 1.620 euro azpitik baloratuta.